

**VII. ATALA
BESTE ZENBAIT****Bilboko Merkatariza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganbera Ofiziala****Laguntzen deialdiaren laburpena modalitate arrunta Xpande Digital 2022 Programa. BDNS (Identif.): 609143.**

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvencio-nes.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/609143>).

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak ezagutzera ematen du nazioarteko marketin digitaleko ekintza-planak garatzeko Xpande Digital 2022 laguntzen deialdi publikoa. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatzen ditu plan horiek.

Lehena. — Onuradunak

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren lurralde-mugapeko ETEak eta autonomoak, EJZ erroldan alta hartuta daudenak.

Bigarrena. — Xedea

Nazioarteko marketin digitaleko ekintza-planak garatzeko laguntzak ematea, Xpande Digital programaren esparruan. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatu du dirulaguntza horien %50a.

Hirugarrena. — Deialdia

Enpresek deialdiaren testu osoa eskura dezakete Bilboko Ganberaren egoitza elektronikoa. Baita ere kontsultatu dezakete <https://www.camarabilbao.com/autonomos-empresas/internacionalizacion/programa-xpande-digital/> webgunean.

Esteka horretan deskargatu ahal izango dituzte deialdia bera eta eskaera egiteko behar den dokumentazio guztia.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdi honen kargura emango diren laguntza ekonomikoak 72.000 euro-koak izango dira. Enpresa bakoitzak gehienez 4.000 euro-ko aurrekontu hautagarria izango du, zeina enpresa onuradunak berak finantzatu beharko baitu aldez aurretik. EGEFek aurrekontu horren % 50a finantzatu du, hortaz, enpresa bakoitzeko gehieneko laguntza 2.000 euro-koa izango da.

Laguntza hauek Xpande Digital Programaren barruan sartzen dira, zeinak 145.600 euro-ko gehienezko exekuzio-aurrekontua baitu «Espainiako Eskualde Anitzeko 2014-2020 Programa Operatiboaren» esparruan, eta zeinak bere baitan hartzen baititu doako aholkularitza- eta jarraipen-zerbitzuak.

Bosgarrena. — Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea goizeko 9:00etan irekiko da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun baliodun igarotzen direnean, eta zabalik egongo da 2022ko irailaren 16ko eguerdiko 14:00ak arte. Hala ere, baliteke epe hori laburtzea aurrekontua agortzen bada.

Bilbon, 2022 otsailaren 1ean.—Jarduneko Idazkari Nagusia, Mikel Arieta-Arauna-beña